



Legez emandako eskurantz bez baliaturik proposatu En virtud de las atribuciones conferidas, se da hurrengo Ebazpena onestea. propone la aprobación de la siguiente Resolución.

<b>Ebazpena / Resolución:</b>	<b>2217 / 2020</b>	<b>Erref. / Ref.:</b>	<b>UAA</b>
<b>Gaia / Asunto:</b>	<b>WANTED 2020. DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA</b>		
<b>Arloa / Área:</b>	<b>GAZTERIA / JUVENTUD</b>		
<b>Interesduna / Interesado:</b>			

**"Wanted'2020" diru-laguntza deialdiaren oinarriak eta deialdia**

**Aprobación de las bases reguladoras y convocatoria de subvenciones "Wanted'2020"**

**AURREKARIAK**

**ANTECEDENTES**

Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizartekintzarako Zuzendaritzak argitaratutako EAEko Gazte Elkartegintzaren Liburu Zuriak jasotzen duenez, ezinbestekoa da sustapen lana elkartu gabeko gazteekin ere egitea. Izan ere, euskal gazte gehienak ez daude irabazi asmorik gabeko entitateetan. Gutxi batzuk dira gazte elkarteetan parte hartzen duten euskal gazteak.

El Libro Blanco del Asociacionismo Juvenil de la CAV, elaborado por la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria del Gobierno Vasco apunta hacia la necesidad de dirigir el trabajo de promoción también hacia las personas jóvenes no asociadas, dado que continúa siendo una minoría de personas jóvenes las que desarrollan actividades de interés juvenil en el marco de las asociaciones sin ánimo de lucro.

Gazteen parte-hartzea eta beraien ekimenerako, sormenerako eta autoenplegurako eta enpresagintzarako gaitasuna piztu beharrean datza, hain zuzen ere, irabazi asmorik gabeko proiektuei laguntzeko premia. Beti eta proiektuok gure udalerrirako onuragarriak eta aberasgarriak badira.

Es desde la necesidad de promover la participación juvenil, la capacidad creativa e iniciativa de las propias personas jóvenes, el autoempleo juvenil y la puesta en marcha de proyectos de emprendizaje desde donde se evidencia el interés de colaborar con proyectos gestados sin el apoyo de una entidad sin ánimo de lucro, siempre y cuando estos proyectos redunden, de una u otra forma, en beneficio del municipio.

Hori aintzat harturik, deialdi hau sortu da, gaur egun laguntza edo bultzada baten beharrean dauden gazteek sustaturiko proiektuei laguntzeko modu egokia delakoan.

Por ello se pone en marcha la presente convocatoria dirigida a posibilitar la plasmación de aquellos proyectos juveniles que actualmente por falta de apoyo o de un adecuado impulso se encuentran en estado latente o en fase de simple idea.

**LEHENENGOA: HELBURUA**

**PRIMERO: FINALIDAD**

Deialdi honen helburu nagusia Getxoko gazteak gure udalerriko gizarte, kultur eta ekonomian, era aktiboan eta hiritar oso gisa, parte hartzera bultzatzea da.

El objetivo general de la presente convocatoria es animar a las personas jóvenes de Getxo a participar activamente, como ciudadanos y ciudadanas de pleno derecho, en la vida social, económica y cultural de su municipio.

Hona hemen helburu zehatzak:

- Gazteen ekimenak eta, baita ere, talde-ekintza bultzatzea, gazteen garapen osoa eta helduarorako igaroaldian beraien heziketa prozesua laguntzeko.
- Getxoko gizarte, ekonomia eta kultura arloko eskaintza orotariko proiektu berritzaileekin aberastu udalerraren dinamizazioan laguntzeko.
- Gazteek berrikuntza eta sorkuntzarako duten gaitasuna eta gazteen irudi positiboa gizartean zabaltzea.
- Etorkizuneko eta balizko enpresagintzarako ibilbidean lagungarriak izan daitezkeen esperientziak bizi izaten lagundu.

### **BIGARRENA: ONURADUNAK**

Banaka edo taldeka (gehieneko partaide kopurua mugatu gabe) parte hartu daiteke. Onuradunak izan daitezke pertsona fisikoak, banaka aurkeztuta, edo pertsona-taldeak, honako formula hauetako baten bidez:

- Junior enpresa elkarteak
- Sozietate Zibila, nortasun juridikorik gabea. Kasu honetan eskaeran argi azalduko dira taldekide bakoitzak proiektua garatzeko hartu dituen konpromisoak, baita bakoitzari dagokion diru-laguntzaren portzentajea ere. Taldekide guztiak onuraduntzat joko dira.

Banaka zein taldeka aurkeztu, kasu guztietan honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Deialdi honetan eskaera egiteko egunean eta erabakiaren egunean 18 urtetik 30 urtera (biak barne) bitartean dauden gazteek parte hartu ahal izango dute. Legez emantzipatuak dauden gazteek ere parte hartu ahal izango dute.
- Banaka aurkeztekotan eskatzailea Getxon egon behar da erroldaturik. Bi parte-hartzailek taldekako formula baten bidez aurkeztekotan gutxienez bietako bat Getxon erroldaturik egon behar da. Hiru parte-hartzaile edo gehiago direnean

Los objetivos concretos son:

- Propiciar las iniciativas de las personas jóvenes, animando también a la acción colectiva, y contribuyendo así a su desarrollo personal y a su proceso formativo en el tránsito hacia la vida adulta.
- Enriquecer la vida social, económica y cultural del municipio de Getxo con todo tipo de proyectos que puedan contribuir a la dinamización del municipio de Getxo en cualquier ámbito.
- Dar a conocer la enorme capacidad creativa y de innovación de las personas jóvenes, potenciando una imagen positiva de la juventud.
- Facilitar experiencias que puedan servir de aprendizaje en futuros e hipotéticos procesos de emprendizaje

### **SEGUNDO: PERSONAS Y ENTIDADES BENEFICIARIAS**

Se podrá participar de manera individual o en grupo (sin límite de integrantes). Así, podrán ser beneficiarias de esta convocatoria tanto personas físicas, a título individual, como agrupaciones de personas, en alguna de las siguientes fórmulas:

- Asociación Junior Empresa
- Sociedad Civil sin personalidad jurídica. En este caso, deberá hacerse constar expresamente en la solicitud los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación, así como el importe de subvención a aplicar por cada uno de ellos, que tendrán igualmente la consideración de personas beneficiarias.

Independientemente de que se opte por la concurrencia individual o agrupada, en todos los casos deberá cumplirse con las siguientes condiciones:

- Todas las personas participantes de esta convocatoria deberán, tanto en el momento de la solicitud como de la resolución, situarse entre los 18 y 30 años (ambos incluidos) o ser personas jóvenes legalmente emancipadas.
- En el caso de participar de manera individual, la persona solicitante deberá estar empadronada en Getxo. En caso de participar dos personas en alguna de las fórmulas agrupadas, al menos una de las personas deberá estarlo. En caso de

gutxienez taldekideen heren bat Getxon erroldaturik egon behar da Binaka aurkeztekotan, (errolda ofizioz egiaztatuko da)

participar tres personas o más en alguna de las fórmulas agrupadas al menos dos terceras partes de la agrupación deberán estarlo (se comprobará de oficio el empadronamiento).

### **HIRUGARRENA: JARDUERA EREMUAK ETA PROIEKTU MOTAK**

Honako jarduera eremuetako batean gauzatuko diren proiektuak aurkeztu eta dirulaguntza eskura dezakete:

- Kultura
- Kirola-jarduera fisikoa
- Osasuna eta bizi kalitatea
- Etxebizitza
- Informazio eta komunikazioen teknologiak
- Hezkuntza ez-formala eta aisialdi hezigarria
- Elkartasuna eta sentiberatzea
- Kulturartekotasuna eta integrazioa
- Aukera berdintasuna
- Euskara eta euskal kultura
- Enpresa
- Turismoa
- Oro har, Udaleko Gazteria Zerbitzuaren eremu zabala.

### **TERCERO: ÁMBITOS DE ACTUACIÓN Y TIPO DE PROYECTOS**

Podrán presentarse y, en su caso, ser subvencionados, todo tipo de proyectos que se ubiquen en alguna de las siguientes áreas:

- Cultura
- Deporte-actividad física
- Salud y calidad de vida
- Vivienda
- Tecnologías de la información y la comunicación
- Educación no formal y ocio educativo
- Solidaridad y sensibilización
- Interculturalidad e integración
- Igualdad de oportunidades
- Euskera y cultura vasca
- Empresa
- Turismo
- Y, en general, el amplio ámbito de actuación del Servicio Municipal de Juventud.

Beraz, honako proiektu motak aurkez daitezke: antzezlan txikiak, *performanceak*, filma laburrak egitea, erakusketak, edozelako lehiaketak antolatzea, udalerrirako interesgarriak izan daitezkeen web orriak, blogak, etab. egitea, aisialdi jarduerak, hala nola ikastaroak eta tailerrak, gizarte arazoetan sentiberatzeko proiektuak, euskaren erabilera sustatzeko proiektuak, hitzaldiak bezalako dibulgaziozko proiektuak, eta abarrekoak. Hau da, orotariko proiektuak, berriak izan ala ez, baldin eta gure herriaren gizarte, ekonomia edo kultura aberasten badute.

Así, podrán presentarse proyectos tales como producción de pequeñas obras teatrales o *performances*, elaboración de cortos, exposiciones, organización de certámenes, elaboración de páginas web, blogs, etc. de interés para el municipio, actividades de ocio educativo como cursos o talleres, proyectos de sensibilización en temas de interés social, proyectos de promoción del uso del euskera o proyectos divulgativos como charlas sobre diferentes temas de interés, etc. En definitiva, todo tipo de proyectos, novedosos o no, que contribuyan a enriquecer la vida social, económica y/o cultural de Getxo.

### **LAUGARRENA: PROIEKTUEN EZAUGARRIAK**

Proiektuek, lehiaketan onartuko badira, honako baldintzak bete behar dituzte:

- Proiektua, hein haindienean, Getxon burutu behar da (ez da onartuko osoz Getxotik kanpo burutzekoa den proiekturik, behar bezala justifikaturik ez badago). Edozelan ere, behin Getxon burutuz gero proiektuak beste edozein tokitara eraman daitezke.

### **CUARTO: REQUISITOS DE LOS PROYECTOS**

Los proyectos han de cumplir con los siguientes requisitos para ser admitidos a concurso:

- El proyecto ha de desarrollarse en una parte sustancial en el ámbito municipal de Getxo (no se admitirán proyectos a desarrollarse en su totalidad fuera del municipio salvo que ello se justifique adecuadamente). En cualquier caso, una vez desarrollado el proyecto en el ámbito

- Pertsona edo talde sustatzaile bakoitzak, gehienez, hiru proiektu aurkeztu ahal izango ditu, denak desberdinak ala proiektu baten aldaerak izan daitezkeenak. Beraz, nahi izanez gero, proiektu bera auzeraz daiteke, garapen maila desberdinetan eta, noski, kostu desberdinekin. Hartara, laguntza jasotzeko aukerak handitzeko.
- Aurreko deialdietan parte hartu eta saririk eskuratu ez duten pertsona edo proiektuak aurkeztu ahal izango dira.
- Aurreko deialdietan saritutako pertsonak aurkeztu ahal izango dira baldin eta aurreko deialdia ez bada edo/eta aurretik bi aldiz saritua izan ez bada,
- Cada persona o grupo promotor podrá presentar un máximo de tres proyectos, que podrán ser diferentes o reelaboraciones del mismo proyecto. Por lo tanto, es posible presentar el mismo proyecto con diferentes niveles de desarrollo y diferentes costes para aumentar así las posibilidades de ser apoyado.
- Podrán volver a presentarse personas y proyectos no premiados en convocatorias anteriores.
- Podrán presentarse personas premiadas en convocatorias anteriores siempre y cuando no sea la convocatoria inmediatamente anterior y no haya sido premiada dos o más veces.

Deialdi hau argitaratu aurretik hasitako proiektuek ere parte har dezakete, oraindik amaitu ez badira.

Podrán concursar proyectos iniciados (aunque no terminados) con anterioridad a la publicación de esta convocatoria.

#### **BOSGARRENA: AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

#### **QUINTO: DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR**

Banakako eskaera denean hauxe da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Cuando se trate de una solicitud individual la documentación a presentar es la siguiente:

- Eskatzailearen NANren fotokopia
- I. eranskina. Eskaera orria beteta
- IV. Eranskina. Eskatzaileak sinatutako erantzukizuneko aitopena, non egiaztatuko den ez duela zerga-zorrik Bizkaiko Foru Ogasunarekin ez ezein beste foru zein estatuko ogasun publikorekin, ezta Gizarte Segurantzarekin edo Getxoko Udalarekin ere. Jasotako diru-laguntza 3000 €tik gorakoa bada jasotzaileak egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, kasu horretan ez baita nahikoa zinpeko aitopena. Egiaztagiri hori diru-laguntzaren zenbatekoa erabaki eta gero eskatuko da. Udalak ofizioz egiaztatuko du azken honekin zorrik ote dagoen.
- V. Eranskina. Burutu nahi den proiektuaren azalpen zehatza
- Fotocopia del DNI de la persona que figure como solicitante.
- Anexo I. Hoja de solicitud cumplimentada.
- Anexo IV. Declaración responsable de la persona solicitante certificando que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con la Hacienda Foral de Bizkaia o con cualquier otra Hacienda Pública foral o estatal, así como con la Seguridad Social y el Ayuntamiento de Getxo. En caso de corresponder una subvención superior a 3.000 € la persona receptora deberá aportar los certificados correspondientes, no siendo suficiente la declaración jurada. Dicho certificado se solicitará tras la resolución. El Ayuntamiento comprobará de oficio la inexistencia de deudas tributarias con dicha entidad.
- Anexo V. Proyecto detallado de las actividades a realizar.

Sozietate Zibil batek eskaera egiten duenean hauxe da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Cuando se trate de una solicitud realizada por una Sociedad Civil la documentación a presentar es la siguiente:

- Sozietate Zibilaren eratze kontratua
- Contrato de constitución de la Sociedad Civil

- Sozietatearen IFK
- Bazkideen NANen fotokopiak
- II. eranskina. Eskaera orria beteta
- IV. Eranskina. Eskatzaileak sinatutako erantzukizunezko aitordpena, non egiaztatuko den ez duela zerga-zorrik Bizkaiko Foru Ogasunarekin ez ezein beste foru zein estatuko ogasun publikorekin, ezta Gizarte Segurantzarekin edo Getxoko Udalarekin ere. Jasotako diru-laguntza 3000 €tik gorakoa bada jasotzaileak egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, kasu horretan ez baita nahikoa zinpeko aitordpena. Egiaztagiri hori diru-laguntzaren zenbatekoa erabaki eta gero eskatuko da. Udalak ofizioz egiaztatuko du azken honekin zorrik ote dagoen.
- V. Eranskina. Burutu nahi den proiektuaren azalpen zehatza
- CIF de la Sociedad
- Fotocopias de los DNI de las personas socias
- Anexo II. Hoja de solicitud cumplimentada.
- Anexo IV. Declaración responsable de la persona o entidad solicitante certificando que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con la Hacienda Foral de Bizkaia o con cualquier otra Hacienda Pública foral o estatal, así como con la Seguridad Social y el Ayuntamiento de Getxo. En caso de corresponder una subvención superior a 3.000 € la persona o entidad receptora deberá aportar los certificados correspondientes, no siendo suficiente la declaración jurada. Dicho certificado se solicitará tras la resolución. El Ayuntamiento comprobará de oficio la inexistencia de deudas tributarias con dicha entidad.
- Anexo V. Proyecto detallado de las actividades a realizar.

Kasu honetan, eskaera bat egin beharko dute, norberaren izenean, sozietate hori osatzen duten bazkide bakoitzak eta alde zurretik eskaera aurkeztu duten bazkideei esleitutako erregistro-zenbakia adierazi beharko dute.

En este caso deberán realizar una solicitud, a título personal, cada una de las socias integrantes de dicha sociedad y, en todo caso, deberán indicar el número de registro asignado a las personas socias que hayan presentado la solicitud previamente.

Junior Enpresa Elkarte batek eskaera egiten duenean hauxe da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Quando se trate de una solicitud realizada por una Asociación Junior Empresa la documentación a presentar es la siguiente:

- Elkartearen fundazio-akta eta elkartearen estatutuak
- Erregistroaren inskripzioa
- Elkartearen IFK
- Bazkide fundatzaileen NANen fotokopiak
- III. eranskina. Eskaera orria beteta
- IV. Eranskina. Eskatzaileak sinatutako erantzukizunezko aitordpena, non egiaztatuko den ez duela zerga-zorrik Bizkaiko Foru Ogasunarekin ez ezein beste foru zein estatuko ogasun publikorekin, ezta Gizarte Segurantzarekin edo Getxoko Udalarekin ere. Jasotako diru-laguntza 3000 €tik gorakoa bada jasotzaileak egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, kasu horretan ez baita nahikoa zinpeko aitordpena. Egiaztagiri hori diru-laguntzaren zenbatekoa erabaki eta gero eskatuko da. Udalak ofizioz egiaztatuko du azken honekin zorrik ote dagoen.
- Acta fundacional y estatutos de la Asociación
- Inscripción en el Registro
- CIF de la Asociación
- Fotocopias de los DNI de las personas socias fundadoras
- Anexo III. Hoja de solicitud cumplimentada.
- Anexo IV. Declaración responsable de la persona o entidad solicitante certificando que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con la Hacienda Foral de Bizkaia o con cualquier otra Hacienda Pública foral o estatal, así como con la Seguridad Social y el Ayuntamiento de Getxo. En caso de corresponder una subvención superior a 3.000 € la persona o entidad receptora deberá aportar los certificados correspondientes, no siendo suficiente la declaración jurada. Dicho certificado se solicitará tras la resolución. El Ayuntamiento comprobará de oficio la

- V. Eranskina. Burutu nahi den proiektuaren azalpen zehatza
- inexistencia de deudas tributarias con dicha entidad.
- Anexo V. Proyecto detallado de las actividades a realizar.

## SEIGARRENA: ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

## SEXTO: LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Eskaera era presentzialean egin ahal izango da ondoren aipatzen diren udal hauetako edozein bulegotan:

La presentación de las solicitudes podrá hacerse de manera presencial e, indistintamente, en cualquiera de las siguientes dependencias municipales:

- Udaletxea. Erregistro Orokorra. Foruak 1.
- Herritarren arretarako Andra Mariko bulegoa. Benturillena 17.
- Herritarren arretarako Areeta-Erromoko bulegoa. Las Mercedes 13.
- Herritarren arretarako Algortako bulegoa. Torrene 3.zbk 48991. Algorta
- Eskabideak Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako edozein tokitan ere aurkez daitezke.
- Ayuntamiento. Registro General. C/ Fueros, 1
- Oficina de Atención Ciudadana de Andra Mari. Benturillena, 17,
- Oficina de Atención Ciudadana de Romo-Las Arenas. Las Mercedes, 13
- Oficina de Atención Ciudadana de Algorta. Torrene 3
- Las solicitudes también se pueden presentar en cualquier sitio previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Era presentzialean egin nahi bada aldez aurretik hitzordua eskatu behar da [www.citaprevia.getxo.eus](http://www.citaprevia.getxo.eus) helbidean edo 946620099 telefonora deituz.

En caso de optar por presentar la solicitud de manera presencial será necesario solicitar una cita previa en [www.citaprevia.getxo.eus](http://www.citaprevia.getxo.eus) o llamando al teléfono 946620099.

Halaber, eskaerak era telematikoan egin ahal izango dira honako urrats hauei jarraiki:

Las solicitudes también podrán tramitarse vía telemática, siguiendo los siguientes pasos:

Getxoko Udaleko [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) helbideko Administrazio Elektronikoa-ren Bulegora (AEB) sartu, ziurtagiri digitalarekin edo itsasontzien jokoarekin identifikatuta.

A través de la página Web del Ayuntamiento de Getxo [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) acceder a la Oficina de Administración Electrónica (OAE) identificándose con certificado digital o Juego de barcos.

Behin identifikatuz gero, sartu Nire erregistro telematikoa-Eskaera egin-Getxoko udala atalean. "Eskaeraren deskripzioa" atalean Gazteria Zerbitzuarentzako eskaera egin nahi dela adierazi beharko da.

Una vez identificado, entrar en Mi registro telemático-Realizar Solicitud-Ayuntamiento de Getxo. En el apartado de "Descripción de la solicitud" debiera indicarse que se trata de una solicitud para el Servicio de Juventud.

Datuak bete, eskatutako dokumentazioa erantsi eta eskabidea bidali.

Rellenar los datos, adjuntar la documentación requerida y enviar solicitud.

Eskaera aurkezteko epea deialdi hau argitaratu eta ondorengo 7 egun baliodunetan irekita egongo da.

El plazo para presentar las solicitudes se abrirá al día siguiente de la publicación de esta convocatoria y permanecerá abierta durante 7 días hábiles

**ZAZPIGARRENA: DIRU-LAGUNTZEN SÉPTIMO: CUANTÍA DE LAS ZENBATEKOA SUBVENCIONES**

25.000 €ko kreditu erabilgarria 2020ko honako aurrekontu partidan dago:

El crédito disponible de 25.000 € proviene de las siguientes partidas presupuestarias de 2020:

- Gazteria Zerbitzua: 15.000 €. 00200/23160/4820000
- Ekonomia Sustapena: 10.000€. 07000 / 43300 / 4820000
- Servicio de Juventud: 15.000 €. 00200/23160/4820000
- Promoción Económica 10.000€. 07000 / 43300 / 4820000

Proiektuek jaso dezaketen gehienezko diru-laguntza 10.000 €koa da. Gutxienezko diru-laguntza 500 €koa da.

El importe máximo de subvención por proyecto es de 10.000 €. El mínimo será de 500 €.

Puntuazio gehien lortzen duen proiektuak hori gauzatzeko behar duen dirua jasoko du. Soberakina bigarren gelditu den proiektuari emango zaio, eta hirugarrenari, kreditu guztia agortu arte. Bigarren proiektua diruz laguntzeko dagoen dirua nahikoa ez balitz hori diru-laguntzarik gabe geratuko litzateke.

El proyecto que obtenga mayor puntuación recibirá la subvención necesaria para su puesta en marcha. La cantidad restante se destinará a subvencionar el proyecto situado, por puntuación, en el segundo lugar, y así sucesivamente hasta agotar el presupuesto disponible. Si la cantidad disponible para subvencionar al segundo proyecto y sucesivos no fuera suficiente para la puesta en marcha de los mismos ésta quedará sin destino

**ZORTZIGARRENA: DIRUTAN EMANDAKO LAGUNTZAREN HELBURUA OCTAVO: DESTINO DE LA SUBVENCIÓN RECIBIDA**

Diru-laguntza honakoetara bidera daiteke:

La subvención recibida podrá destinarse a:

- Proiektua garatzeko beharrezkoak diren materialak, ekipamendua edo bestelako azpiegiturak erosteko, jasotako diru-laguntzaren %50aren mugarekin.
- Proiektua garatzeko beharrezkoak diren materialak, ekipamendua edo bestelako azpiegiturak alokatzeko.
- Hirugarren batek emandako zerbitzuak ordaintzeko
- Salmentara bideratuko diren kontsumo ondasun edo produktuak ekoizteko, jasotako diru-laguntzaren %50aren mugarekin.
- Autonomoen kuota proiekturako beharrezkoa balitz
- Compra de materiales, equipamiento u otro tipo de infraestructura necesaria para el desarrollo del proyecto, con un límite del 50% de la subvención recibida.
- Alquiler de materiales, equipamiento u otro tipo de infraestructura necesaria para el desarrollo del proyecto.
- Pago por servicios a terceros
- Producción o fabricación de productos u otro tipo de bienes de consumo destinados a la venta, con un límite de un 50% de la subvención recibida.
- Cuota de autónomos, cuando sea necesaria para el desarrollo del proyecto

Halaber, diru-laguntza ezin da erabili sustatzaileari edo talde sustatzaileko kidea den beste edonorenen lan sariak ordaintzeko.

Asimismo, la subvención no podrá destinarse a remunerar a la persona promotora ni a ninguna otra que integre el grupo promotor.

**BEDERATZIGARRENA: PROIEKTUEN NOVENO: SELECCIÓN DE LOS AUKERAKETA ETA BALORAZIO PROYECTOS Y CRITERIOS DE IRIZPIDEAK VALORACIÓN**

Proiektuak aukeratzeko honako Udal Arloetako teknikariek osatutako diziplina anitzeko talde

La selección del proyecto o proyectos ganadores se realizará por personal técnico de

bat eratuko da:

- Gazteria Zerbitzua
- Ekonomia Sustapena

Proiektu irabazleak aukeratzeko honako irizpideak hartuko dira kontuan:

- Proiektuaren bideragarritasuna (30 puntu) Giza baliabideak eta baliabide ekonomiko zein materialak kontuan hartuko dira.
  - 15 puntu: bideragarritasun ekonomikoa. Egin nahi denaren eta aurkeztutako aurrekontuaren arteko oreka baloratuko da.
  - 15 puntu: bideragarritasun materiala. Proiektua garatzeko behar diren azpiegiturak eta baliabide materialak eskuratzeko poribiltarte erreala baloratuko da.
- Taldearen profila (10 puntu): Taldekideen formakuntza (ofiziala izan ala ez, titulazioa izan ala ez), gaitasunak eta trebeziak baloratuko dira.
- Originaltasuna eta berrikuntza (40 puntu) Proiektu berritzailea izatea baloratuko da, bai edukiari dagokionez, bai metodologiari dagokionez.
  - 20 puntu: gaiaren originaltasuna. Gaia erabat berria edo gutxi jorratutakoa, behintzat esparru hurbilean.
  - 20 puntu: lan-metodologiaren originaltasuna. Gaia erabat berria ez izan arren, gaia lantzeko era edo arazo bati irtenbidea emateko modua berria izatea.
- Proiektuaren zehaztapen maila (20 puntu) Proiektua ondo formulatuta, argia eta zehatza izatea, baina helburuei dagokienez bai deskribatutako prozesuaren zehaztapenari dagokionez.
  - 10 puntu: helburu argiak
  - 10 puntu: lan prozesu argia

Proiekturen bat Udalak dituen politikaren baten kontra joan daitekeela ondorioztatuko balitz arlo horretan eskuduna den arloari txosten loteslea eskatuko daio.

las siguientes Áreas Municipales:

- Servicio de Juventud
- Promoción Económica

A la hora de seleccionar el proyecto o proyectos ganadores se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

- La viabilidad del proyecto (30 puntos) Teniendo en cuenta los recursos humanos, económicos y materiales disponibles.
  - 15 puntos: viabilidad económica. Se valorará el grado de adecuación entre lo que se pretende hacer y el presupuesto planteado como necesario.
  - 15 puntos: viabilidad material del proyecto. Se valorará la posibilidad real de obtener los recursos materiales e infraestructuras necesarias para el desarrollo del proyecto.
- Perfil del equipo (10 puntos): Se valorará la formación (oficial o no, con o sin titulación), habilidades y conocimientos de las personas que integran el equipo.
- La originalidad y el carácter innovador (40 puntos) Se valorará el que se trate de un proyecto novedoso, tanto en relación a su contenido como a su metodología.
  - 20 puntos: originalidad de la temática. Que se trate de un tema nuevo completamente o poco trabajado, al menos en el entorno cercano.
  - 20 puntos: originalidad en la metodología de trabajo. Que aunque el tema no sea nuevo, lo sea la manera de abordarlo o de dar solución a cuestiones o problemas conocidos.
- El grado de concreción del proyecto (20 puntos) Que el proyecto se encuentre bien formulado y sea claro en los objetivos y proceso de trabajo descrito.
  - 10 puntos: claridad en objetivos
  - 10 puntos: claridad en el proceso descrito

En caso de que se valore que el proyecto presentado puede entrar en contradicción con algún campo de la política municipal se solicitará al área competente un informe vinculante sobre la idoneidad de éste.

**HAMARGARRENA: IZAPIDEAK ETA DECIMO: TRAMITACIÓN Y RESOLUCIÓN EBAZPENA**

- Honako oinarri espezifiko hauetan jasotako diru-laguntzak emateko organo instrukzio-egilea Gazteria Zerbitzuak eta Ekonomia Sustapenak osatua egongo da
- Alkatetzak ebatziko du 2985-2019 Alkatetza Dekretuan ezarritakoaren arabera.
- Ebazteko proposamena diru-laguntza emateko ahalmena duen Alkateari egingo dio taldeko aginte-organo batek, 38/2003 Lege orokorrarekin bat. Organo kolegiatuaren osaera 3235-2019 Alkatetzako dekretuak onetsitakoa da.
- Diru-laguntza emateko baldintza da Foru Ogasunarekin, Getxoko Udalarekin edo Gizarte Segurantzarekin zorrik ez edukitzea, eta hasita dauden itzulketa prozedurengatik zorduna ez izatea
- El órgano instructor para la concesión de las subvenciones recogidas en las presentes bases específicas estará formado por el Servicio de Juventud y Promoción Económica.
- Competerá al Alcalde, a propuesta del referido órgano, la resolución, en virtud de lo dispuesto en el Decreto de Alcaldía 2985-2019.
- La propuesta de concesión se formulará al Alcalde por un órgano colegiado, según establece la Ley 38/2003 General de Subvenciones cuya composición es la recogida en el Decreto de Alcaldía 3235-2019.
- Es condición necesaria para la concesión y, en su caso, el pago a las personas beneficiarias de las ayudas reguladas en la presente convocatoria no tener deudas ni con la Hacienda Foral, ni con el Ayuntamiento de Getxo, ni con la Seguridad Social, así como no resultar deudor de ningún procedimiento de reintegro.

**HAMAIKAGARRENA: DIRU-LAGUNTZEN ORDAINKETA DECIMOPRIMERO: ABONO DE LAS SUBVENCIONES**

Diru-laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira erabakia hartu ondoren. Ordainketa hori aldez aurretik egingo da proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko.

El abono de las subvenciones se realizará en un sólo pago que se producirá tras el fallo del jurado. Dicho pago se realizará por anticipado por considerarse necesaria para la viabilidad del proyecto.

Diru-laguntza jasotzeko kontu korrontea eman beharkoda. Kontu korronte horren titularra eskaera egin duena izango da eta baimenduak izango dira gainerako taldekideak.

En caso de resultar subvencionado, se facilitará un número de cuenta en el que hacer el ingreso. En dicha cuenta ha de aparecer como titular la persona que ha realizado la solicitud de la subvención y como autorizadas el resto de las personas integrantes del equipo promotor.

Emandako diru-laguntzak BDNS delakoaren bidez jakinaraziko dira. Halaber, interesdunei ere jakinaraziko zaie.

Las subvenciones concedidas se harán públicas mediante su envío a la BDNS. Asimismo, se dará cuenta del fallo a las personas interesadas.

**HAMABIGARRENA: DIRU-LAGUNTZA JASOKO LUKETEN PERTSONEN BETEBEHARRAK DECIMOSEGUNDO: OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS BENEFICIARIAS**

Diru-laguntza jaso duten pertsonak honako betebeharrak dituzte:

- Asumir todas las responsabilidades que

- Aurreikusitako proiektua edo programa egitearen ondorioz sor daitezkeen erantzukizun guztiak onartu.
  - Diru-laguntza eman zaion programa ez aldatu udaleko Gazteria Zerbitzuak eta Ekonomia Sustapenak aurrez baimenik eman gabe.
  - Emandako diru-laguntzaren helburua egiaztatzeko eta jarraipena egiteko Gazteria Zerbitzuak eta Ekonomia Sustapenak erabakitako jarduerak onartu.
  - Iragarkietan eta komunikazio ekintza guztietan adierazi proiektua, programa edo jarduera Getxoko Udalaren laguntzarekin egin dela.
  - Proiektuarekin, programarekin edo jarduerarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez erabili hizkuntza eta irudi sexistarik.
  - Proiektuarekin, programarekin edo jarduerarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan hizkuntz normalizaziorako irizpideak bete.
- podieran derivarse de la realización del proyecto o programa previsto.
- No modificar el programa para el que se concedió la subvención sin la previa conformidad del Servicio Municipal de Juventud y Promoción Económica.
  - Someterse a las actuaciones de comprobación y seguimiento de la aplicación de la subvención concedida que estime oportuno el Servicio de Juventud y Promoción Económica.
  - Hacer constar en la publicidad y en los actos de comunicación que el proyecto, programa o actividad se realiza con la colaboración del Ayuntamiento de Getxo.
  - No hacer un uso sexista del lenguaje y la imagen en la publicidad y la comunicación relacionadas con el proyecto, programa o actividad.
  - Atenerse a criterios de normalización lingüística en la publicidad y la comunicación relacionadas con el proyecto, programa o actividad.

#### **HAMAHIRUGARRENA: LAGUNTZAREN ZURIKETA**

#### **DIRU-DECIMOTERCERO: JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN RECIBIDA**

- Diru-laguntza eman zaion jarduera amaitutakoan, diru hori zuzen erabili dela adierazten duten dokumentuak eman beharko dira.
- Horretarako, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da gutxienez:
  - Egin den jardueraren memoria zehatza.
  - Jarduerako diru sarreraren eta gastuen balantzea.
  - Jasotako aurrekontu osoa ekonomikoki justifikatzeko agiriak; hau da,
    - Justifikazio-kontua (honetarako dagoen eranskina Gazteria Zerbitzuen eskatu).
- Diru-laguntza eman zaion jarduera edo gertakizuna dela eta argitaratu diren esku-orri, kartel, liburu, bideo, CD-Rom... guztien ale bana.
- Diru-laguntzaren zuriketa proiektua amaitu eta, gehienez, 45 egunera egin behar da. Proiektuaren gehienezko iraupena urtebetekoa izango da.
- Halaber, zuriketa egiteko aurkeztuko diren fakturen datak proiektuaren iraupen-
- Una vez finalizada la actividad para cuya realización se concedió la subvención, deberá procederse a la justificación documental que acredite el correcto empleo dada a la misma.
- La documentación a aportar a tales efectos será, como mínimo, la relacionada a continuación:
  - Memoria detallada de la actividad desarrollada.
  - Balance de ingresos y gastos originados por la actividad.
  - Justificación económica por el montante total del presupuesto, de la siguiente manera:
    - Cuenta Justificativa (solicitar anexo correspondiente en el Servicio de Juventud)
- Aportación de un ejemplar de cada uno de los folletos, carteles, libros, vídeos, CD-Rom, etc. que se hayan editado o publicado con ocasión de la actividad o evento subvencionados.
- La justificación de los gastos deberá realizarse dentro de los 45 días siguientes a la finalización del proyecto, cuya duración no deberá exceder el año a contar desde el momento de la concesión.
- Las facturas a presentar a modo de justificación deberán estar fechadas dentro

denborarekin bat etorri behar dira eta horietan diru-laguntza eskatu duen pertsonaren edo, hala bada, Sozietate Zibilaren edo Junior Enpresa Elkartearen izen eta IFK agertu beharko dira.

del período de duración del proyecto y en ellas deberá constar el nombre y CIF de la persona o, en su caso, la Sociedad Civil o la Asociación Junior Empresa solicitante.

- Jarduera burutzeko beste erakunde publiko edo pribaturen baten diru-laguntza ere jaso baldin bada, kreditatu egin beharko da funts horiek nondik etorri diren eta nola erabili diren diru-laguntza jaso duen jardueran.
- Diru-laguntza jaso duenak dokumentu originalak behar izanez gero, fotokopiarekin batera ekarriko ditu aurkeztu dituen originalak, erkatu egingo dira eta originalak zigilua ezarrita itzuliko zaizkio.
- Cuando la actividad haya sido cofinanciada con otras ayudas o recursos por parte de cualquier otra entidad pública o privada, deberá acreditarse, como parte de la justificación, la procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.
- Cuando la persona beneficiaria precise de los documentos originales presentados, los mismos se aportarán junto con fotocopia, la cuál será cotejada y los originales sellados y devueltos a aquélla.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

- 2003ko azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorra eta aipatu legearen Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua
- 204ko abenduaren 30ean Osoko Bilkuran onartu eta 2005eko urtarrilaren 25ean BAOean argitaratutako udal aginduarekin bat etorrita

### FUNDAMENTOS DE DERECHO

- Ley 38/2003 General de Subvenciones del 17 de noviembre de 2003 como al Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la citada ley
- Ordenanza Municipal aprobada en Pleno de fecha 30 de diciembre de 2004 y publicada en el BOB el 24 de enero de 2005

### ERABAKI DUT

- I.- Wanted 2020 diru-laguntza deialdiaren oinarriak eta deialdia onetsi
- II.- Diru-laguntza hauetarako 25.000,00 €-ko gastua baimentzea.
- III.- Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean arigaratzea
- IV.- Deialdia BDNS delakoan erregistratzea

### RESUELVO

- I.- Aprobar las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones Wanted 2020.
- II.- Autorizar el gasto destinado a dichas subvenciones, que asciende a un total de 25.000,00 €.
- III.- Publicar las presentes bases en el Boletín Oficial de Bizkaia
- IV\_ Registrar la convocatoria en la BDNS

Ebazpena hau Alkatearen eskuordetzaren bidez eman da

Esta Resolución se ha adoptado por Delegación de la Alcaldesa

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurarik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (<http://www.getxo.eus/> administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerrean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (<http://www.getxo.eus/> Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.